



EZKERRA EUROAPAN

EZKERRAREN EGITASMOAN
EMAKUMEEN ESTRATEGIAREN BEHARRA

1. SARRERA

2. EGOERAREN DESKRIPZIOA

- 2.1. Eredu patriarkalaren ezaugarriak
- 2.2. Berdintasunaren hitzaldia eta emakume neoliberalaren eredua.
- 2.3. Berdintasun kontzeptuaren asimilazioa botere eta eskuinatik
- 2.4. Feminismoa Europan, Euskal Herrian eta Ezker abertzalean

3. EZKERRAREN ARRAZOIAK FEMINISMOA JASOTZEKO ETA EGINKIZUNA FEMINISMO BORROKAREKIN.

- 3.1. Feminismoak eta emakumeen borrokak azterketa kritikoari eta errealitatearen eraldatzeari laguntza ematen diote.
- 3.2. Feminismoak eta emakumeen borrokak azterketa kritikoari eta errealitatearen eraldatzeari laguntza ematen diote.

4. EZKERREKO IKASGAI ZINTZILIKA

5. EZKERREKO PROPOSAMENAK PERSPEKTIBA FEMINISTAREN GARAPENERAKO

Joana Regueiro
Batasunako Emakume Saileko partaidea



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

1. SARRERA

- 1) Testu honen bidez abiapuntu bat markatu nahi dugu, ezkerrean feminismoaren eta borroka feministaren erronkei, gaurkotasunari eta beharri ekiteko. Gai honek arreta berezia eta sakona exijitzen du, beraz ezin da ideologia patriarkala erreproduzitzen dituzten eskema zaharkituen bidez landu (adibide batzuk, eredu patriarkala emakumeen eta gizonen artean dagoen berdintasunarekin konpontzen da, arazoa gizon batzuen matxismoa baino ez da, hezkuntzarena da, emakumeen borroka emakumeaz bakarrik kezkatu eta arduratzen da...). Ideologia hau ezkerrearen sail batzuetako joeretan mantentzen da. Ez dugu ezer aurreratuko, definizio gisa ezkerre feministak dela esaten badugu.
- 2) Ezkerrearen Egitasmo Politikoetan perspektiba feministaren parte hartzeko defizit bat dagoela esan dezakegu, haxe lehen mailako estrategia gaia izaki. Ponentzia honetan zehar perspektiba feminista hau aztertzen saiatuko gara.
- 3) Ezkerreko estrategiak gaurkotzean eta garatzean baliagarria izan daitekeen ideologia-politikaren gaineko gogoeta egitea proposatzen da. Ezkerreko estrategien helburua da mendetasuneko giza harremanik gabeko (boteririk gabeko) gizartea lortzea da. Ez gara gogoeta teoriko, abstraktua eta filosofiko bati buruz hitz egiten ari. Ez dago zentratuta joera feminista ezberdinetan; errealitatean eta gizartearen bilakaera (egitura) erradikalean kokatuta baizik.
- 4) Beste aldetik, egoera feminista aztertzeke beharra ez da berria ezkerrean. Historikoki ezkerrek opresio, esplotazio eta desberdintasunen aurka borrokatu egin du ...ezkerrek sexuen desberdintasunen aurkako borroka eta gizarte ez patriarkala lortzeko helburua planteatu behar izan du. Hala ere, behar hau noizean behin baino ez dela eman azpimarratu behar dugu, gainera era diskurtsiboan eta gero eta modu programatikoagoan. Baina inoiz ez da joratu zehar lan sistematiko baten ardatz estrategiko gisa.
- 5) Garatzen diren ideiak oinarritzkoak dira eta ezinbesteko interbentzio arlo politikoak bultzatu eta garatu nahi dituzte, zeren ezkerre bere estrategia feminista aztertu eta definitzeko gauza ez bada, bere egitasmoa bera izango da zalantzan jarriko dena. Batez ere haxe esan nahi dugu, giza ezberdintasunen garaipenaren printzipiotik, ezin dela gizartearen aldaketaren alde borrokatu; hain zuzen, emakume den gizarte erdiaren zapalkuntza egoerari muzin eginez.

2. EGOERAREN DESKRIPZIOA

- 6) Hasteko eredu patriarkalaren deskripzio txiki bat egitea eta bere ezaugarri nagusiak zenbatzea ezinbestekoa da. Horretaz gain, eskumak eta botereak berdintasun hitzaren asimilatu dute eta horren gaineko gogoeta txiki bat egin behar dugu.

2.1. Ereditasun patriarkalaren ezaugarriak



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN
Nazioarteko topaketak 2006
SOKOA III

- 7) Eredu patriarkalak zatiketa eta pertsonen arteko erlazio hierarkiakoa erabiltzen du, sexuaren arabera. Eredu patriarkalak emakumearen mendetasuna finkatzen du eta deritzogun egiturazko opresioa sortzen du. Zergatik estrukturala? ... Geure gizartearen ekonomi, politika eta ideologia antolakuntzaren oinarrian dagoelako. Gure bizitzaren arlo guztietan eragiten duelako.
- 8) Estrukturala da sistema kapitalista eredu patriarkalaren gainean osatzen delako. Emakume eta gizonen arteko giza banaketa hierarkikoak bi alor hauetan badirau: alde batetik, zeharo bereziak diren aktibitate ekonomikoaren bi esparruk determinatzen duten lanaren sexu banaketan eta, bestaldetik, eredu patriarkalaren asistentzia bermatzen duen gisa erakunde politiko- sozial sexualean, sistema kapitalistaren garapenaren zutabe gisa agertzen zaiguna. Hala, lan arloan produktiboa deritzogun esparrura zuzendutako lan eskuak, hain zuzen lan indarra, maskulinoan definitzen diren bitartean, emakumearentzako lan arlo nagusia seme alabak sortzea da, baita lan indarra (maskulinoa) zaintzea. Hala ere, Kapitalismoaren garapen, behar edo interesen arabera, aktibitate ez laboral hau aldi berean eman daiteke lan merkatuan leku subsidiario batean lan egitearekin
- 9) Gaur eguneko kapitalismoaren fase neoliberalak jeneroaren desberdintasunak murriztu beharrean sexu lan banaketa berria osatzen ari da, bere helburua da biztanle femenino aktibo kopurua areagotzea. Gizarte babes eta lan baldintzen prekarizazio orokorraren testuinguruan, biztanle aktibo femeninoa areagotzea lortu nahi dute emakume langileak subsidiaritatean egonkortzeari esker.
- 10) Emakumeari inposatutako subsidiaritateak denetarik diskriminazioak sortu eta euren gizarte babesak murrizten ditu, bai lan munduan sartu eta parte hartzean, bai etxeko ardurak eta zaintzaren erantzukizunak gizarteratu eta banatzean.
- 11) Lan erlazioen eredua eta antolakuntza, sistema patriarkalean, kapitalaren interes eta beharrek eta langileen eskubide ekonomiko eta sozialek elkarri aurre egiten dioten gataskaren arabera definitzen da. Maskulinoa erabiltzen dugu, Langileek, emakumeek egite duten ez errekonozitutako, ez ordaindutako eta ez legeztatutako lanari esker, euren oinarritzko bizi beharrak ase dituztelako. Lan hauek, kapitalaren hornitzaile eta berebiziko erakunde patriarkala den familia nukleoan burutzen dira. Hain zuzen ere, eredu patriarkala kapitalaren hornitzailea da.
- 12) Sistema patriarkaletik, oinarritzko eragin ekonomikoa duen sistema patriarkala da, (lanaren zatiketa, etxeko lana edo umeak izatea ...), eta oinugarria suertatzen da gizonentzat, emakumeen mendetasun eta opresioaren truke pribilegioen marko bat osatzen delako.
- 13) Prekarietate orokor honetaz aparte, bizi unitateen hazkunde iraunkorra, non emakumeek seme-alabak bere karguan dituzten, eraispen eta zerbitzu sozial publiko eskasen pribatizazioarekin batera, probokatzen ari dira emakumeen txirotasun prozesu alarmagarria, eta agerian uzten dute sarrera eta partaidetasuna ezberdinak direla emakumeen aberastasunaren banaketan. Egun txirotasunaren feminizazioa errealitate ukaezinezkoa da.



EZKERRA EUROPAAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

- 14) Estrukturala da, ohizko politikak ez dituelako emakumeen hiritar eskubideak kontuan hartzen. Emakumeok ez gara eskubide osoko subjektu politikoak, bigarren mailako subjektu politiko gisa onartuta gaudelako. Boterearen banaketa emakume eta gizonen artean ez da paritarioa batez ere erabakiak hartzeko orduan. Badago desberdintasun eta inposaketa bat pertsona bakoitzak sexuaren arabera edukiko duen erabakitze gaitasunaren gainean. Gaitasun honen garapena ez da aukera berdinetan ematen.
- 15) Banaketa ezberdinak eragina du emakumeen erabakitze gaitasunaren murrizketan, adibidez esparru pribatuan, gure bizimoduarekin harremanatutako erabakiak, sexualitatea eta batez ere umeak izatea; erakunde patriarkalak, familia eta senar-emaztea bezalakoak, iraupen interesegatik baldintzatuta daude. Tankera pertsonaleko erabakiak hartzera behartuta gaude, inposatutako eredu patriarkal sozio-politikoaren interesen arabera.
- 16) Banaketa ezberdinak emakumeen erabakitze gaitasuna ere murrizten du batez ere esparru publikoan, emakumeen partaidetasuna oso eskasa da eta ez du gure interesen babesa bermatzen. Emakumeen partaidetasun sozial altua ez da esparru politikoan ikusten, gizonen kasuan ez bezala, (gure presentzia alderdi politikoetan, sindikatuetan eta beste erakundeetan oso eskasa da) Gizarteari kalte egiten dioten erabakiak, botere zentroetan hartzen dira eta emakumeak ez gaude ordezkaturik berauetan. Emakumeen mugimenduari ez zaio inolako tankera edo balio politiko sozialik eman. Erabaki politikoak hartzeko orduan ez dira bere plantamenduak kontuan hartzen.
- 17) Estrukturala, ideologia dominatzailea patriarkala delako. Hitzaldi patriarkal dominatzailea hurrengo ideian datza, hegemonikoa izan nahi duen ideian alegia: Emakumeek beraien eskubideak lortu dituzte, bizi garen gizarteak (garatua eta aurrerakoa) sexuen arteko beharrezkoa den berdintasun mailaren kontsekuzioa bermatzen du. Zuzendu gabe gelditzen den gauza bakarra arazo tekniko batzuk baino ez dira emakumeen eskubideak praktikan ipintzeko orduan.
- 18) Ideia hauek indartzen dira agente ideologikoen detektatzen dituzten tresnen bidez (komunikabideak, hezkuntza sistema, eliza, familia, publizitatea) Agente ideologikoen, sexuen arteko mendetasun giza harremanak burutzeko eta zilegitasuna emateko arduradunak dira. Ideologiaren sarrera oso handia da eta emakume asko dira plantamendu horiekin ados daudenak.

2.2 Berdintasunaren hitzaldia eta emakume neoliberalaren ereduak.

- 19) Sistemak berdintasunaren hitzaldi faltsua erakundetzen joan den heinean feminismoak iraganean zeukan zentsu edo balore soziala neurri handi batean galdu du. Emakumeen egoerari buruzko gabezia nabarmentzen da, ikuspuntu kritiko batetik ikusita eta lortutako aldaketak goraiatzeko joera dago. Kontzientzia feministaren gabezia orokorra da eta politika ezkertian ere ikusten da. Feminismoa despolitizatzen joan da. Euskal gizarteak ez ditu feminismoaren planteamenduak ezagutzen, emakume eta gizonen arteko harremanak eraldatzeko borroka bezala hartu beharrean, berdintasunaren aldeko borroka bailitzan ulertzen da.



EZKERRA EUROPAAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

- 20) Ideologia dominatzailearen aurrerapena, emakume eta gizonen arteko berdintasun sententzio faltsuaren eraikuntza (sententzioa faltsua da, alde batetik berdintasun ez garelako eta beste alde batetik aukerak berdintasun ez ditugulako ere) edo jarrera indibidual- pertsonalak direla egoera alda dezaketen bakarrak delako ideia ere (matxismoa tankera edo izaeraren seinalea bailitza) agente ideologiko guztietatik bidalitako hitzaldia da (hezkuntza sistema, komunikabideak, familia, eliza, lagun-aldea, ...) emakumeen beraien kontzientzia murrizteko prozesua bere egoeraren aurrean ere eragin eta kalatu duenaren hitzaldia da.
- 21) Genero berdintasuna, goi mundu mailan garatzen ari den garrantzia gobernatu politikan, munduko batzarretan, konbentzioetan, konstituzioetan, legetan..Berdintasunaren erakundetzeak ez du ekarri beharrezkoa den hobekuntza emakumeen bizitzako baldintzetan. Berdintasuna ez da errealia eta ez da legez ezartzen .
- 22) Genero dimentsio politika internazionalak gobernu eta instituzioen ardura eta bereizketa agerian utzi duen arren, konbentzio internazionalak asmo hutsak baino ez dira emakumeen bereizkeriaren kontra. Gobernuarentzat gaitasun arautegirik gabeko proposamenak dira. Emakumeen interesak babesteko oso urrun, gure eskubideei buruz erabakitze gaitasuna botatzea da, estatu eta interes ekonomikoak zapalduz.
- 23) Testuinguru honetan, ohiko ereduarekin batera, neoliberalismoak eredu tradizional bat proposatzen digu, non nola izan emakume bat azaltzen den. Egokitasun honek, autonomia ekonomikoa duten emakume gutxiengoari tradizionalki gizonari eman zaien baloreak jasotzeko aukera eskaintzen dio, eta neoliberal pentsamenduaren esentzia suposatzen diren baloreak (lehiatasuna, arrazionaltasuna, eraginkortasuna indibidualismoa, zuhurkeria, ausartasuna ...).
- 24) Pentsamendu neoliberalak pertsonen arteko desberdintasunak onartzen ditu, bere gizarte eredu lehiakorra da, elkartzunetik gabekoa eta banakako funtzionamendu hobe lortzeko helburuarekin. Bere helburua eliteen hedapena ziurtatzea da, eta elite hauek prestatuta daude gero eta gaiztoagoa den sistema baten aurrerapena gidatzeko. Eliteak gaitasun handiko pertsonetatik osatuta daude (emakumea zein gizona, koloredun edo zuriak, erlijioak edo ateoak) askatasunez elkarren artean lehiatzen diren eliteak.
- 25) Indibidualismoak, kontsumismoak eta orokorrean neoliberal balore guztiak emakumeen kontzientzian eta identitate mailan eragiten dute. Neoliberalismoa ahalegin handiak egiten ari da dauzkagun ezaugarriak ezabatzeko: **EMAKUMEAK EUSKALDUNAK ETA LANGILEAK.**

2.3. Berdintasun kontzeptuaren asimilazioa botere eta eskuinatik

- 26) Eskuina emakumeen eskubideak eta sexuen arteko berdintasun kontzeptua bideratzen ari da. Historikoki, eskuinak eta sektore kontserbatzaileenak elizarekin batera (botere eklesiastiko batera), ideologia patriarkalari buruzko ideiarik erradikalenak egin dituztenak dira. Gaur egun beraien erreakzioa emakumeen bizitzarako eskubidearen aurrean, lan, osasun eta hezkuntzarako eskubideen aurrean... beraien politikan nabaria da. Gaur egun



EZKERRE EUROPAAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

sexuen osagarritasunaren ideia, eragin gehiena daukan kontzeptuetariko bat da, osagarritasun honek emakumeak egoera sozialean, sekundarioan, subsidiarioan eta menpeko egoeran jartzen ditu.

27) Emakumeen diskriminazioari buruz nolabaiteko kontzientzia soziala dago. Gaur egun ideologia patriarkalean aurkitzen den berdintasun faltsuak ez du sexu diskriminazio eta desberdintasunen somaketa sozialaren arteko kontraesanik adierazten. Gaur egun ia inork ez du dudarik injustizia sozial dagoela, emakumeak edozein motatako gehiegikerien biktimak izan daitezkeela gizonak bezalakoak izan arren, emakumeek gizonak baino askoz gehiago jasaten dituzte desberdintasun sozialaren ondorioak (langabezia, txirotasuna, bortizkeria...) Harrikatze praktika ezagutzen da , mozketak sexualak, emakumeen komertzioa, heriotzak, bortxaketak.... Lehen mundutik ikusitako errealitateak dira eredu patriarkalaren zapalkuntzaren adierazpenik odoltsuena bailitza , soldataren diskriminazioari garrantzia kentzen diote, kaleratzea, maileguen falta, prekaritatea, txirotasuna, gure inguruak aurkitzen direnak.

28) Beste errealitateak ere ikusten dira, emakumeek bereziki jasan behar dituztenak, etxeko bortizkeria, anorexia, bulimia bezalakoak... Egoera hauen aurrean sentsibilitate soziala dago, baina askotan ikuskizun gisa aurkezten duen hedabideen diskurtsoan erraz erortzen da ; salbuespen gisa, morboan zerbait ikusirik, sentimenduen bidezko hurbilpena eta era berean beraiengandik urrunduta, beraien egoera pribilegiatua delako sentsazioa eraginez.

2.4. Feminismoa Europan, Euskal Herrian eta Ezker abertzalean

Gaurko feminismoak Europan

29) Joera ezberdinek emakumeen mugimendu eta feminismoaren historiaren parte osatzen dute internazional mailan. Feministek historian zehar bere planteamendu eta borrokari buruzko desberdintasunak eraiki dituzte. Nazio eta herri bakoitzeko testuinguru sozial, ekonomiko eta politikoak gaur egun Europa nolakoa izango den zehazten dute, hauek emakumeen borroka tokian tokiko errealitateara egokitzen dute. (Europa, entitate eztabaidagarria emakumeen ikuspuntutik, gaur egun Europako emakume mugimenduari buruz ezin genezake hitz egin, herri garatuetan emakumeen borrokengandik ez balira; eurozentrismoa arriskuan egonez, kapitalismo neoliberalaren parametroetatik emakumeen egoera neurtzean, berdintasun politikak esportatuz, eta gobernuen mekanismo juridikoak eta asistentzialak.

30) Baina testuingurua, ezberdintasun horiek markatu duena baino ez da, Europan feminismoaren historiaren parte osatu duten plantamendu edo joera feminista ezberdinen izatea onartzen da ere, bere manifestazioak ezberdinak izan arren , hauexek dira: feminismo liberala, berdintasun feminismoa eta ezberdintasun feminismoa. Emakumeen zapalkuntzaren ondorioei dagokionez bakoitzak jarrera desberdinak mantentzen ditu, proposatzen duten askapen proiektua, perfilatzen duten borroka feminista subjektua eta borroka feministak mantendu behar duen harremana beste askapeneko borrokekin.

31) Feminismo liberaletik (Ilustrazioaren oinardekoa) zapalkuntzaren ondorioa emakumeen eta eskubide zibilen onarpen eza da, zuzendu behar diren sistema akatsak



EZKERRA EUROPAAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

dira. Bere proiektua sistema demokratikoak erreformatzean datza, emakumeak eskubide osoko hiritar gisa gehitzeko, bere protagonistak, independentzia ekonomiko eta bere presentzia politikagatik borrokatzen duten emakumeak, borroka feminista autonomoa da eta instituzional arloan kokatuta dago.

32) Berdintasun feminismoarentzat desberdintasuna, emakumeei jarri zaien mendetasun historikoa da, botere sozialeko harremanak dira; emakumeei bigarren mailako posizio soziala ematen ez dien gizarte berdintasuna nahi dute. Horretarako emakumeak eta sektore aurrerakoiak izango dira berdintasun estatusa erreklamatzeko dituztenak.

33) Feminismo sozialistak zapalkuntza patriarkalaren ondorioa kapitalismoan kokatzen du, esplotazio ekonomiko sistema gisa eta mendetasun politika eta ideologiko sistema gisa. Bere proiektua, sistema sozial berri bat da, non ez dagoen klase sozialik, sistema ez inperialista ez patriarkala, emakumeak subjektu iraultzaileak dira eta transformazio estrukturalaren alde borrokatzen duten gizonak ere subjektu iraultzaileak dira, borroka feminista borroka iraultzaile guztiarekin interlazioztatzen da.

34) Desberdintasun feminismoak eredu patriarkala ikusten du balore femeninoen txikiespen gisa (maskulino orden sozialean), emakume eta gizonen artean desberdintasun esentzial bat dago, horregatik emakumeen askapena emakumezko orden sozial bat ipintzean datza, emakumeengandik infrabaloratu dena goratzean datza, balore unibertsal gisa, emakumeak askatasun balore zehatz batzuen eramaileak bezala protagonistak izango dira, bere borroka independentea da, beste borroketatik erabateko autonomoa.

35) Honaino azterketa teoriko bat, estrategiei buruzko hausnarketa irekitzeko, tendentziak baino gehiago gaur egun borroka feministan adierazten direnak.

36) Azken hamarkadetan praktika feminista desberdinak kontuan hartzen dira eta horrela marka genitzakeenak.

37) Emakumeen mugimendu teorikoa eta akademikoa, feminista intelektual eta zientifikoetatik osatuta dago. Emakume hauek jenero eta ikerketa feministak garatzen dituzte, unibertsitate sisteman integraturik ezagupen esparru ezberdinak, zientifiko-tekniko eta gizatasunak arloan, ikasgaiak sortuz, gradu-ostekoak, katedrak. Ikerketa larroek emakumearen diskriminazioaren egoerari buruzko datuak ematen dituzte. Jardunaldiaz aparte, Jenero ikasketa Institutuak, dokumentazio guneak.. ikasketako sistematik kanpo daude. 70. urteko emakumeen mugimenduko hainbat kidek gogoeta teorikoan androzentrismo zientifikoaren aurkako borroka aurkitu zuten.

38) Emakumeen mugimendua instituzionala eta liberala da. Feminismoak bere ahalegin guztiak lantegi eta instituzio politikoetan finkatzen ditu, eta emakume presio taldeak eta elkartasunak egiten ditu. Emakume presio taldeak Lobbie-ak dira, boterearen kotak areagotzeko, demokrazia paritarioa deritzoten ikuspuntutik. Guzti hau, boterearekin erlazioa daiteke, (Empowerment) berau izango litzateke erabakitze-prozesuetan emakumeen partehartze handiagoa eta boteretsua izatea eta berauek berez dauzkaten kontzientzia hartzeko gaitasuna praktikan politikan jartzea. Emakumeek banaka eta kolektiboki duten kontzientzia gisa ulertzen da.



EZKERRA EUROPAAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

39) Emakumeen mugimendua soziala eta asistentziara da, emakumeen bereizkeriak probokatzen dituen behar sozialak zaintzeko helburuarekin. Emakumeen lokal kolektiboek egoera zehatzetan eragina dute, adibidez emakumeei laguntzen diete. Feminista borrokaren forma historikoa da, errealitate ezberdinak hartzen ditu; erasoak, osasuna, antisorgailuen erabilera, lanbideren diskriminazioa, juridikoa, formazioa, sexualitatea, prostituzioa ... (gatazka armatuen ondorioen aurrean, era guztietako eraso, injustizia, txirotasun eta prekarietateen aurrean antolatzen diren emakumeak asko dira , eta adibide asko dago. Hiritar gisa beharrezkoak diren eskubide ekonomiko, sozial eta kulturak lortzeko helburuarekin.) Gaur egun, aipatu behar, erakunde publikoak eta Ongizateak zerbitzu hauen zati txikiena bere gain hartu dutela. Orain arazoa pribatizazioa prozesuan dago, eta gastu publikoaren murrizketarekin batera doa.

40) Azkenik, emakumeen mugimendua errebindikatzailerik eta erantzulea da. Eskakizun feministekin identifikatzen diren erakundeak, kolektiboak, elkarteak eta emakume taldeak; hauek oraindik ezinbestekoa den kontzientziazio lan soziala garatzen dute, hain zuzen ere, emakumeen bereizkeriari buruzko lana, salaketa esparruak, gogoeta eta ekimen zabalak ere. Azken urte hauetan marko berriak zabaldu dira (adibidez, antiglobalizazio foroak, munduko martxa eta eskubide gutuna). Marko hauek elkartasun estrategikoaren garapena baimentzen dute nazio arteko mailan. Emakumeen egoerari buruzko diagnostikoen aurrean, emakume guztietatik larritzat eta alarmagarritzat hartutako diagnostikoak dira. Gaurko estatuek nahi duten jarrera kritikoak, Europako ereduari dagokionez, neoliberalismo, Europako konstituzio, gobernu eta legeei dagokionez, planteamendu feminista honetan daude.

Emakumeen mugimendua Euskal Herrian, Ezker Abertzalean.

41) 1.975. urte arte Euskal Emakumeen Mugimenduak ez zuen erakunde estruktural garrantzitsu batekin kontatu Euskal Herrian. Urte horretatik aurrera herrialde desberdinetan talde txikiak sortzen hasi dira eta horien bidez batzarrak sortzen dira.

42) 1.977. urtean Euskal Emakumeen Lehen Jardunaldiak izan ziren, zeinetan 3.000 emakume parte hartu zuten, beste gai artetan, batez ere eredu patriarkalari buruz eztabaidatu zuten, militantzia bikoitza edo sexualitateari buruz ere hitz egin zuten. Lehenbiziko aldia izan zen gai hauek era irekian aztertu zirela.

43) 1.984. urtean EMAKUMEEN BIGARREN TOPAKETAK ospatzen dira, aizan eta emakume batzarrek antolatuak, batzarra hauetan gai nagusia Hego Euskal Herriko emakumeen mugimenduaren egoera izan zen, eta agerian gelditu zen erakunde ezberdinen arteko aurkakotasuna, erakunde eta borrokaren autonomia ulertzeko orduan. Momentu hartan, eskubide batzuen instituzionalizazio eta onespena hasi berria zen demokraziaren irudi faltsua eman zuten.

44) 1.994. urtean, Euskal emakumeen hirugarren eta azken topaketak ospatu ziren, berauek Egizian eta Emakumeen Batzarrak antolatu zituzten, non egoerari buruzko azterketaren aurrean jarrera ezberdinez gain erabat dibergenteak diren mugimendu feministaren ikuspuntuak errepikatzen diren. Badago antolatzeko era desberdinak . Topaketa hauetan agerian gelditzen da praktika feminista gaurkotzeko beharra.



EZKERRA EUROPAAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

Ezker abertzalean garapena

45) Ipar Euskal Herrian teoria ekarpen garrantzitsuak egin ziren Frantziako emakumeen mugimendua erreferentzi gisa hartuz. Iparraldeko ezker abertzaleko emakumeek esparru teorikoan sakontzen zuten bitartean hegoaldeko emakumeek askoz gehiago sakondu zuten praktika feminista. 1976. Urtean EUSKAL EMAZTEAK BEREN ASKATASUNAREN ALDE delako taldea sortu zen borroka ez patriarkal aurrera eramateko helburuarekin, askatasun sozial eta nazionalaren alde. Beste alde batetik, EEBAA, zapalkuntza hirukoitza garatu zuen lehendabiziko taldea izan zen.

46) 1978. urtean EEBAA-ko emakume batzuk, Koordinadora Abertzale Sozialista, KAS-aren parte osatzen zuten emakumeen taldea, eta inguruko beste feminista batzuk, KAS EMAKUMEAK sortu zuten, Erreforma Politika berriari aurre egiteko helburuarekin eta Kas-eko helburuei Euskal Herria ez patriarkal bat osatzeko helburua gehitu. (Euskal Herria independentea, sozialista, lotuta eta euskalduna). Hala ere, agerian utzi zuten emakumeen askatasuna ez zela independentzia eta sozialismoaren ondorio zuzena izango, baizik eta berehala hasi beharreko borroka zela, eta horretarako beharrezkoa zen erabakitze boterearekin erakunde sortzea ezker abertzalaren barruan.

47) 1981. urtean KAS EMAKUMEAK -ko militante ohiek eta prozesu hori bizi izan ez zuten beste batzuk AIZAN sortu zuten, borroka feminista gelditzen diren gainerako borrokekin erlazionatzeko helburuarekin. Emakume hauek eskakizun feministei eman nahi zioten eduki politikoan sakondu zuten. Marxismoaren tresna teorikoak erabili zuten emakume euskaldunen egoera azaltzeko eta emakume euskaldun langilearen kontzeptua sortu zuten zapalkuntza hirukoitza azaltzeko. Aipatutako zapalkuntza esparru ekonomikotik, juridikotik, politikotik eta ideologikotik aztertu zuten.

48) 1984. urtean Aizanek eta Bilkurak, Emakume Euskaldunen Bigarren Lanegunak antolatu zituzten, zeinetan Aizanek agerian utzi duen beharrezkoa dela emakumeen eskubideen aldeko borroka klase eta nazional borrokarekin lotzea. Onartzen dute emakumeen borroka ezin dela luzatu nazio eta klase eskubideak lortu arte, baina azken hauek nahitaezko eskubideak direla emakume euskaldun eta langileen askatasunerako.

49) 1987. urtean KAS-aren barruan Egizan erakunde feminista autonomoa sortzen da. Aizan erakunde berriaren prozesuaren berme bihurtu zen. Alde batetik, ezker abertzaleko emakume militante askoen kontzientzia feminista aktibatzea eta garatzea lortu zen, beste alde batetik, Euskal Herriko mugimendu feministaren barruan beste jarrera bailitzan onartzea lortu zen.

50) Hala ere, Egizaneko sorketaren prozesuan zehar agerian gelditu zen ezker abertzaleak ez zuela inolako kontzientzia feministarik, horregatik sektore askotan ez zen ikusten erakunde feminista autonomoa bat sortzeko beharra ezker abertzalaren barruan. Hala eta guztiz ere, Egizanek beste erakundetara esperientzia zuten emakume eta feministek osatutako oinarri garrantzitsuarekin kontatu zuen. Egizan-en zeregina bi esparrutan zentratu zen, alde batetik planteamenduetatik emakumeen antolakuntza eta kontzientzia bultzatzean datza, eta beste alde batetik Kas-aren borroka, ezker abertzaleko inplikazio eta kontzientzia feminista areagotzean.



EZKERRA EUROPAAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

51) 1989an Herri Batasunaren Mahai Nazionalen Emakumearen Askapenerako Mugimenduarekiko Harremanatzeko Area sortzen da, beste Gizarte Mugimendu batzekin egiten zen bezalaxe. Hala ere, hasierako bereizitasun hau argi eta garbi eskas geratu zen, barruko egituretan zein publikoan egindako praktikak berak exijitutako kontzientziatze feministari eta interbentzio lanari erantzuteko. Hala, 1992an eta barruko eztabaida baten ostean, tokian tokiko “dinamizatzailaren” figura sortzen da. Emakume honek auzo eta herrietako kontzientzia feminista bultzatu behar du.. Osteko urteetan, era ezberdin batez, emakume hauen lana eta gai ezberdinetan Emakumearen Area bera koordinatzen saiatuko zen. 2000. urtean BATASUNA sortzen denean, ezker abertzalearen prozesu feministaren baitan, antolamendu osoa blaitu dezan “politika feminista” onartzeaz hitz egiten da.

52) 1996.urtean, LAB EMAKUMEAK AREA sortzen da zuzenbide organoan kokatuta gogoeta estrategikoa eta taktikoa bultzatzeko funtzioarekin, estrategia honek sexu genero zapalkuntzaren aurkako borrokan sindikatua tresna eraginkor bihurtzea posibilizatzen du. Areak perspektiba feministaren transbersalizazioaren berme gisa lan egiten du antolakuntza eta akzio sindikalean. Tresna aukera berdintasunen plana da.

53) 1999. urtean Euskal Herriko mugimendu feministak lehenengo plataforma nazionala sortu zuen, plataforma honetan emakumeen talde autonomoak eta sindikatu eta alderdi guneak parte hartze dute, 2000. urtean Emakumeen Ibilbide Mundiala antolatzeko helburuarekin , eta Irun eta Hondarribiako alardeetan emakumeen partaidetasunaren eskakizuna artikulatzeko helburuarekin. Egizanek akzio nazionalako plan baten balorazioa proposatu zuen baina ez zuen erakunde guztien akordioa lortu eta Plataforma Nazionala uztea erabaki zuten.

54) Egizan-ek mugimendu feminista subjektu politiko bihurtzeko beharra planteatu zuen, feminista prozesua martxan jarritz, ezker abertzaleak ere agente feminista bihurtzen den heinean.

55) 2001eko apirilean Egizan-ek erakunde gisa bere aktibitatea utzi zuen. Ezker abertzaleko emakumeengan kontzientzia feminista bultzatzeko helburuarekin eta horrela perspektiba feminista praktika politikan sartzeko.

56) 2003. urtean Emakume Abertzaleen Bigarren Bilkura Nazionala izan zen, non egindako ikasketa soziologikoei esker, ezker abertzaleko militantziaren kontzientziatzeko mailan aurrerapen handiak nabaritzen diren. Prozesu feministaren diseinua jarraituz, esker abertzaleko erakunde ezberdinetan barruko planak egiten ari dira, perspektiba feminista sartzeko helburuarekin, eta ezker abertzaleko oinarri ideologiko feministak onartzen dira, zeinetan baieztatzen den emakumeen zapalkuntza estrukturala dela. Ezker abertzaleko emakumeek zehar-lan feminista egiteko beharra azpimarratzen dute, esparru guztietara heltzen dena eta ohizko lana bilatzeko eta agente abertzale feminista ezberdinen arteko koordinazioa lortzeko beharra ere azpimarratzen dute.

57) Emakumeen mugimendua gaur egunean, 1.999. urtetik hona koka dezakeguna, plataformen arteko elkartasunetatik bereizten da. Plataformek gai zehatzak lantzen dituzte , martxoak 8, azaroa 25, biolentzia sexuala, emakumeen munduko martxa ... Elkartasun hauen artean azpimarratu behar den elementua da gero eta nazionalagoa den tankera



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

garatu duela. Elkartasun hauetan parte hartzen dutenak, erakunde autonomoekin batera alderdi eta sindikatuen idazkaritzak aurkitzen dira.

58) Emakumeen erakunde autonomoaren sorketa 2.002an izan zen, Euskal Herriko Bilgune Feminista ezinbestekoa da jokabidea definitzeko eta lehen aipatu dugun tankera nazionala lortzeko.

59) Bilgune Feminista, Emakume Feminista eta Abertzaleen Lehenengo Topaketak egin ostean martxan jarri zen, 2001.urtean, Leitzan. Topaketa hauetan Euskal Herriko emakumeen diagnostiko baten gainean lan egiten da. Proposamen feministak estrukturalak eta sektorialak sortzeko beharra dago. Eta laburpen gisa, proposamen hauek aurrera eramateko, emakume feminista eta abertzaleen sarearen sortzea. Bilgune feminista sare hau martxan jartzeko sortzen da eta lehen aipatu ditugun proposamenak aurrera eramateko. Azken urte hauen zehar beste emakume topaketa feminista eta abertzale bi egin dira, proposamenen definizioan sakontzeko helburuarekin.

3. EZKERRAREN ARRAZOIAK FEMINISMOA JASOTZEKO ETA EGINKIZUNA FEMINISMO BORROKAREKIN.

3.1.Feminismoak eta emakumeen borrokak azterketa kritikoari eta errealitatearen eraldatzeari laguntza ematen diote.

60) Arlo honetan emakumeen borrokaren gakoak biltzen dira, beraren ikuspuntutik ikusita gizarte justu eta gizarte-berdintasun bateko burutzapenerako. Horretarako bi gako nagusi aipatu behar: teoriko-ideologikoa eta praktika politikoa eta antolatzailea. Laburpen bat Euskal herriko mugimendu feministak dituen gaurko erronkak identifika ditzagun.

Ekarpen teorikoak

61) Feminismoak termino eta kontzeptu berriak sortu ditu, ez asmakerien gustuagatik, aipatugabeko errealitateak, estalitako errealitateak, izendatu ahal izateko baizik. Teoria ezberdinak egin dira eta agerian utzi dute aurrekontu askoen joera androzentrikoa, eta ez bakarrik ideologia patriarkaletik baizik eta ezkerren pentsamendu kritiko eta iraultzailearen izan ziren zutabetatik. Horrez gain, historikoki garatu diren joera feministen aniztasunaz gain (feminismo liberala, sozialista, gizarte-berdintasuna, desberdintasuna...) kontzeptu orokor batzuk marka ditzakegu ekarpen horiek identifikatzeko.

62) Kontzeptuak eredu patriarkala bezala, sexu-genero sistema, sexismoa, berdintasuna, parekidetasuna, bereizkeria, akzio baikorra, genero bortizkeria, emakumeen aurka, lana, etxeko lana, publikoa/pribatua, gorputz sexuduna, sexualitatea, lesbianismoa osasun integrala...bezalako kontzeptuek erabateko eragina izan dute berrikusteko beharretan, giza-azterketan erabilitako kontzeptuak eta ideiak berdefinitzea, maila guztietan: zientzian, politikan, eta egunerokoan.

63) Sexuen arteko mendetasun giza- harremanak eta gainditzeko aukera ematen duen berbategi berria. Feminismoaren ekarpen teorikoak ez dira iraganakoak (60 eta 70 urtekoak, urte hauetan ezkerren debateak marxismo klasikoaren kontzeptuei buruz



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

biratzen zuen, produkzioa-erreprodukzioa bezala, subjektu iraultzailea, gizarte sozialista/feminista...) orainaldian ere debate oso garrantzitsuak egiten jarraitzen du politika ondorioengatik (generoen adierazleak, zeharkakoa, identitate sexualak...)

64) Feminismoak agerian utzi du jenero harreman sozialak bitarteko gisa erabilia edo gurutzatuta daudela klase elementuagatik, arrazagatik eta nazioagatik (ez du berdin ukitzen emakume guztiak, baina bai komunean dituzten aldeak.)

65) Emakumeen egoerari dagokionez eta Euskal Herriko mugimendu feminista diagnostiko orokor komun batetik abiatzen da emakumeek jasaten duten bereizkeriak edo gabezi demokratikoa jarraitzen du, errealitate berriak agertu arren:

Lan arloan, laneko baldintzak eta lanpostuaren mantentzea, soldataren bereizkeria, adiskidetzeta, erasoak...

Politika arloan, emakumeen gehikuntza klase politikora, emakumeen eskubideak defendatzen ez dituen politikara hain zuzen ere, adierazpen askatasun eta politikoa parte hartzearen murrizketak.

Ideologia arloan, ideologia patriarkalaren iraupena eta erreprodukzioa sozialkuntzaren agente guztietan, hezkuntza sistema, familia, komunikabideak, eliza, lagunak....

66) Hiritar gisa dauzkagun eskubideei buruz, paperean daude baina ez daude errealitatean. Oinarrizko eskubide demokratikoen defizita benetako ukapenetik beraien inposaketara doa. Ez daukagu eskubiderik , ez bizitza duina eramateko, ez eragiten gaituzten erabakiak hartzeko ,ezta berezko gorputzarekin bizitzeko ere . Diagnostiko hau iraunkorki azaldu arren, zailtasuna mugimendurako estrategia bat komunean egitean datza.

Praktika politika eta antolatzaileen ekarpenak

67) Feminismoaren oinarrizko ekarpena praktika politikara , agian, lema klasiko batean ikus daiteke (pertsonala dena, politikoa da).. Feminismoak politiko dena egunerokoan kokatzen du, zuzenki, emakumeen bizi baldintzetan, hauek hobetzeko etxebizitza zuzenetik, beharrak, gabekeriak eta gabezi horiek gainditzeko gaitasuna(nabarmena da mugimendu feministaren esperientzia planing antolatzeko, laguntza zuzena, asistentzialismoa...Errealitatearen dimentsio guztietan zeharka lan egiten du (ekonomia, lana, politika, soziala, kultura, legea, pertsonala, hezkuntza, komunikabideak, osasuna...)

68) Beste ekarpena aurkitzen dugu mugimendu feministak sortu duen subjektu politikoa, emakumeak subjektu aktibo bihurtu behar dute, auto-antolaketa, horizontalitatea. Gaurko emakumeen mugimendua sortzen joan den antolatzeko modu anitza (herriko eta auzoko emakumeen taldeetatik, areak eta idazkaritzak nahasitako antolakuntzatik, alderdi feministara arte.) bere iraunkortasuna, gaurkotasuna eta potentzialtasuna askapen sozialaren borrokan erakusten du.

3.2 Feminismoak eta emakumeen borroka ezkerreko borroken garapenari laguntza ematen diote

69) Emakumeek jasaten duten zapalkuntza estrukturalak eskatzen du bizi dugun egoera aldatzeko proiektua erabatekoa izan dadila . Proiektu integral batek ekimenak kontuan har ditzan errealitate soziala, ekonomikoa , politikoa eta ideologikoa eraldatzeko. Emakumeen



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

partaidetasun parekidea eta gizonen antolakuntza sozialean eta gestioan oinarrituz eta sexuen arteko harreman sozial pertsonalak eta kolektibo hierarkiakoak gaindituz.

70) Teorikoki izan arren, historikoki ezkerrek bere eraldaketaren proiektuetan estrategia feminista bateko oinarriak begiratu ditu. Ezkerren beste mundu baterako borrokek gizarte erdia baino gehiagok dauzkaten eskubideak kontuan hartu behar diren ideia biltzen da, oraindik garatu ez den ardatz bat da. Ez zaio inolako lehentasunik eman eta ez da eraiki estrategia bat emakumeen eskakizunak praktikan aurrera eramateko. Honen adibide gisa, Euskal Herrian Ezker Abertzaleari buruz hitz egin dezakegu, azterketa honi heldu ostean prozesua martxan jarri zuen bere proiektu barruan zehazteko, sexu-jeneroaren zapalketaren kontrako borroka eta emakumeen eskubideen eskakizuna, laburbilduz, estrategia feminista era praktika batera sartzeko.

71) Ezkerrek ez du mugimendu feministaren tankera politikoa onartu eta ez du subjektu aktibo bezala ikusten, ezinbestekoa dena gizartearen eraldakuntzarako eta eredu berri bat eraikitzeko. Horrez gain, mugimendu feministaren garapena azken dekadatan errealitate bat da eta honek emakumeen eskakizunak eta borrokaren zentzua ziurtatzen ditu.

72) Mugimendu feminista, mugimendu berreskuratzailea, deskonformista ez da iraganakoa, 70 urtekoa, emakumeen interesen eta eskubideen alde borrokatzen eta defendatzen jarraitzen du. Bizi kalitatearen hobekuntzarako beharrezkoak diren alternatibak jartzen ditu. Feminismoak sistema kapitalista patriarkalak eragindako zapalkuntza gainditzea lortu nahi du eta horretarako erakundeei salaketa eta kontzientzia eskatzen dizkie. Emakume feministek denboran zehar kontzientzi bat garatu dute eta autoantolaketa gaitasuna bere gain hartu dute, (era desberdinak, helburu ezberdinak, praktika ezberdinak, esperientziak...) Mugimendu feminista benetako subjektu politikoa da, oinarritzko papera daukana gaurko esparru sozio-politikoan eta gizarte ez patriarkal baten eraikuntzan.

73) Azken urtetan ezkerren gaurko borroka ezaugarri ezberdinak hartu ditu, eskakizunen internalizazioa bezala (mugimendu internazionalista antikapitalistak, antiglobalizazioa, foro internazionala, nazionalak, borroken artikulazio lokalak) Dimentsio sozialaren garapena eta askatasun zibila beste ezaugarri bat da. (banakako eta taldekako eskubideei buruzko borrokaren hedapena eta sakontasuna, autodeterminazioa, hiritartasuna, eskubide sozialak, ekonomikoak eta kulturalak) eta amaitzeko antolakuntza gaitasunaren garapena (Modu anitza, eztabaidak eta borroka marko berriak sortzen dira. Hauek herriko eskakizunekin bat egiten dute.)

74) Aipatutako ezaugarriak indartzen joan dira, ez bakarrik ezkerreko erakundeek egindako lanagatik baizik eta emakume eta mugimendu feministaren kontribuzioei esker. Haustura proposatzen duten ekimen guztietan bilduta daude.

75) Azkenik, uste dugu ezkerrek berdintasun faltsuaren kontrako borroka bere gain hartu behar duela. Boterea eta eskuina emakumeen bereizkeria aitortzen duen kontzientzi soziala eraikitzen ari dira. Emakumeak eremu publikoan eta politikagintzan gero eta parte hartze handiagoa izan arren, egungo eragile politikoetan eta erabaki guneetan dagoen emakume kopuruak murriztuta jarraitzen du. Hitzaldia eta praktika guztiz faltsuak dira.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

76) Aspektu batzuk hobetzeaz gain, badago borroka honetan bereziki kezkatzen gaituen errealitatea, emakumeek bigarren kategoriako hiritarrak izaten jarraitzen dutela. Lehen aipatu dugunez, esan genezake teorikoki aurrera joan garela baina honek errealitatean estrategia eta praktika politika feministaren garapena eta diseinua bere gain ez hartzea suposatzen du.

4. EZKERREKO IKASGAI ZINTZILIKAK

77) Ezkerrak daukan ikasgairik garrantzitsuenak gaurko proiektuan feminismoaren berrokapena da eta feminista ideologiaren balorazioa. Ezin liteke ezkerreko proiektu bati buruz hitz egitea feminismoari buruz hitz egin barik. Ezin liteke ezkerreko proiektu bat definitzea feminismoa ez badago integratuta.

78) Beharrezkoa da feminismoari, borrokari eta mugimendu feministari buruzko nahasketa ideologikoa gainditzea. Gizartean mugimendu feministari buruzko ezagutzagabetasuna dago. Eta badago emakumeen mugimenduaren deskalifikazioari buruzko interesak.

79) Feminismoa gizonen aurkako borrokarekin nahasten da, baina feminista joeren aldetik gizarte ez patriarkal bategatik eta sexuen arteko harreman sozialak poteran oinarrituta ez daudenen alde borrokatzen da.

80) Feminismoa kontuan hartzen da zerbait homogenea izango balitz bezala, orduan feminismoaren joera ezberdinak kontuan hartuz, zenbait feminismoari buruz hitz egin beharko genuke (liberala, sozialista, erradikala, berdintasunezkoa, ezberdintasunezkoa, helburu ezberdinetakoak, borrokak, subjektuak...)

81) Kontuan hartzen da emakumeen eskakizunak eta eskubideak emakumeen gauzak direla (sexualitatea, amatasuna, etxeko bortizkeria...) Iraultza pribatua, pertsonala, etxekoa edo bakarrik ideologikoa da, gizon gehienak indibidualki eta emakume kontserbadore batzuk erakusten duten matxismoa bailitzan eredu patriarkalean gainditzeko gelditzen den gauza bakarra, eta gero eta argiago dago bereizkeria zapalkuntza dela, eredu patriarkala ez da bakarrik irauten eta erreproduzitzen baizik eta gaurko gizarte kapitalistarekin itsatsita dagoela (neoliberalismo patriarkalak, kapitalismoak, eta eredu patriarkalaren elkarren ondoan etengabe behar dute.)

82) Egoera edozein mailatara (nazionala zein internazionala) bere osotasunean ulertzeko beharrezkoa da emakume eta gizonen arteko harremanak analisiaren barruan kokatzea. Batzuetan sistema ekonomikoak inposatutako giza harremanekin mamiki lotuta, sistema ekonomikoarekin batera doaz. Sistema patriarkalaren zatirik garrantzitsuenak da sistema ekonomiko kapitalista neoliberalarentzat.

83) Hitz handietan mintzatuz gero, lau haizetara zabal dezakegu herri langilearen barruan emakumeen egoera ekonomikoa eta soziala gizonen bano askoz txarragoa dela (hurrupakuntza bikoitza, txirotasuna...) Gaur egungo langileen egoera ahaztu barik. Globalizazio neoliberalaren bilakaera zenbat eta handiago izan orduan eta larriagoa izango da. Globalizazio neoliberalaren bilakaerak egoera okertze aldera egiten du. Joera hau gelditzeko ekimenak gehitzea ezinbestekoa da.



EZKERRA EUROPAAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

84) Bai esparru instituzional publikotan bai ezkerrearen alderdietan eta antolaketetan emakumeen partaidetasuna politikan ez da nahikoa, eskasa da. Kontrastatzen dena emakumeen partaidetasun handiarekin borrokan eta mugimendu sozialetan. Halako egoera bat ezin da mantendu sistema politiko bat eraiki nahi badugu oinarritzko base demokratikoekin.

85) Ezkerreko erakundetan emakumeen bidezko parte hartzea premiazko bermea da jenero egokitasun eta justizia sozialaren helburuak lortzeko. Beharrezkoa da neurriak hartzea partaidetasuna errazteko.

86) Ezinbestekoa da kontzientziatzeko lana burutzea eta beharrezkoa da ezkerreko erakundetan praktika militantean ematen diren jarrera sexistak gainditzea (portaerak, erantzukizunen banaketa, betebeharrak...)

87) Premiazkoa da elkar harremanatutako interbentzio lerroak garatzea. Ezkerrak ezin du sakabanatuta jarraitu, ezkerrak ezin du historikoki garatu dituen herriko eskakizunak eta mugimendu feminista ahaztu. Kontuan hartuz non kokatu nahi duen eskuinak politika eta politiko dena, hiritartasunetik eta gizartetik urrunduta, ahotsa kenduz, manipulatur, eta botoa merkatarizatuz, ezkerrak politikoa dena berriro kokatu behar du, beharrezkoa den gaitasun politika altxatuz eta subjektu berriak sortuz, pertsonen eta kolektiboen partaidetasun politikari zentzua emateko.

88) Gaur egun jakinarazi nahi digute kapitalismoa gizartearen eredu bakarra dela, eta gainera sexuen arteko berdintasuna ziurtatzen duen sistema dela. Zentzu honetan, ezkerrak gizarte feminista eta gizarte ez patriarkal bateko ereduak egin behar ditu. Emakumeen egoerak ezin du itxaron denbora gehiagorik sasi konponketekin. Ezkerra feminista definitu behar da eta ezkerrak feminismo baloretan eraikitako gizarte bat errebindikatu eta bultzatu behar du.

5. EZKERREKO PROPOSAMENAK PERSPEKTIBA FEMINISTAREN GARAPENERAKO

89) Lehen aipatu dugunari aurre egiteko, azpimarratuko genuke ezker barruan estrategia feminista praktiko bat sortzeko beharra dagoela.

90) Abiapuntutzat hartuta, momentu honetan beharrezkoa da ikustea berdintasuna ez dela errealia eta oraindik emakumeen eskubideen aldeko borroka ez dela lehenengo mailakoa.

91) Gizarte berri honetarantz aurrera joateko, uste dugu beharrezkoa dela lan egitea elkartasun feminista bat eraikitzeko ezkerreko emakumeen artean. Elkartasun feminista bat non emakumeen partaidetasuna eta laneko metodoak aztertuko dituzten.

92) Elkartasun honek emakumeen eskubideen aldeko borroka gehitzea gure agendako lehentasunei ziurtatu behar du. Premiazko lana da, lan feminista, zeharka eta integrala garatuz.



EZKERRA EUROPAAREN ATARIAN
Nazioarteko topaketak 2006
SOKOA III

- 93) Gizartearen esparru guztietan ezkerren proiektu estrategikoak ekimen feministak begiratu behar ditu.
- 94) Emakumeak ez dira izan behar bakarrik zati aktiboa beraien eskubideen borrokan, dinamizatuak eta liderrak bezalakoak, ez emakumeak bakarrik gizonen partaidetasuna ere beharrezkoa da borrokan. Interbentzio politikaren eremu multzoak eraikitzeko ordua da. Helbururik garrantzitsuen eraldaketa delako eta hau guztion lana da.
- 95) Emakumeen eskubideen aldeko borroka gizartearen erdia baino gehiago osatzen duen pertsonen eskubideen aldeko borroka da. Ez dira kolektibo bateko eskubideak bakarrik, gizarte zibilaren eskubideak ere dira egokitasunean bizitzeko.
- 96) Eskubideak, emakumeek eta mugimendu feministak formulatuta izan behar dira, ez estatu edo alderdikarien interesengandik. Emakumeek gozatzen ez ditugun eskubideei buruzko azterketa dago mugimendu feministaren partetik internazional mailara.
- 97) Beste bete behar bat da subjektu feministaren tankera sozio-politiko kontuan hartzea, hau da, subjektu feministaren adierazpen ezberdinak kontuan hartu behar direla subjektu politiko bihurtu bere indarra onartuz. Ezkerak egin behar dituen lanak dira emakumeen auto-antolaketa bultzatzea, emakumeak subjektu feminista eta subjektu politiko bihurtzeko beharrezkoak diren baldintzak sortzea eta partaidetasun politikako bideak kolektibo eta erakunde feministei irekitzea.
- 98) Azkenik, ibilbide honetan ere ezinbestekoa da ezker eta mugimendu feministaren arteko elkartasunak ezartzea, testuinguru politiko kontuan hartuz, eta gaurko emakumeen bizitzarako baldintzak hobetzeko helburuarekin gizarte ez patriarkal baterako eraikuntzarantz aurrera joateko.